Bergarako Udala

2027 urtean txurreria jartzeko lurzoruaren okupaziorako baimenak emateko prozedura arautzen duen baldintza-plegua

1. Deialdiaren xedea

2026. urtean zehar, behean jasotako epealdietan, txurroak saltzeko jarduerarako ibilgailuekin lurzoru publikoaren okupazioa egiteko baimenak ematea Fraiskozuri Plazan.

Epealdiak:

1.- 2027ko urtarrilaren 21etik otsailaren 28ra arte.

2.- 2027ko martxoaren 4tik martxoaren 21era arte.

3.- 2027ko urriaren 14tik azaroaren 28ra arte.

4.- 2027ko azaroaren 30etik 2028ko urtarrilaren 16ra arte.

**Epealdi hauek irizpide orokorretara egokitzeko unean doitu ahal izango dira.*

2. Eskaerak

Interesa duen edozein pertsona fisikok edo juridikok –betiere baimena eskatzen duen jarduerarako betebeharrak betetzen baditu–, edo haren legezko ordezkariak egin ditzakete eskaerak **F0140D** inprimakia beteta eta bertan azaldu beharko dute zein datetan nahi duten okupazio eta salmentarako baimena, bai eta baldintza-plegu honek jasotzen dituen betebehar guztiak ezagutzen dituztela eta betetzeko prest daudela ere.

Matrikula bera duten bi eskaera ez dira onartuko.

Interesdun horiek Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera (paperean edo elektronikoki). Halaber, Bergarako Udala EIS zerbitzura atxikita dago (EIS: Erregistroen Interkonexio Sistema) eta zerbitzu horren bidez, interesatuek udal honetara bideratutako eskaerak edo agiriak beste administrazio batzuetan erregistratu ditzakete, modu seguruan eta legezko adostasunarekin. Beraz, honako hauetan ere erregistratu ditzakete:

- EIS sistemaren barruan dagoen edozein administrazio publikotan (udalak, aldundiak, autonomia-erkidegoak, estatuko administrazioa edo mendeko erakundeak), haien erregistro-arloko arreta-bulegotan.
- Postetxean, EBBE (ORVE) zerbitzuan.

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 4an, 13:00ean bukatuko da.

3. Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak

Adjudikazio-hartzaile edo baimendunaren betebeharrak:

1.- Betebehar orokorrak

- Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean altan egotea.
- Janariak manipulatzeko ziurtagiria izatea jardungo dutenek.

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea.
- Bergarako Udalarekiko betebeharretan egunean egotea.
- Dagokion epigrafean, Jarduera Ekonomikoen Zergan altan egotea.
- Erantzukizun zibileko poliza kontratatuta izatea jarduera hori babesteko (gutxienez 150.000 euroko estaldurarekin).
- Elikagai-establezimenduen eta elikatze-jardueren erregistroan altan egotea.
- Jarduerarako erabiliko duen ibilgailuak ikuskapen sanitarioa eta ibilgailuen ikuskapen teknikoa pasatuta izatea.
- Salmenta-produktuaren edo -produktuen araudian ezarritako baldintzak betetzea. Kalean saltzeko araubidez merkaturatzen edo saltzen diren produktuek osasun, higiene, normalizazio eta etiketatze alorretan ezarritakoa bete behar dute.
- Aplikatu beharreko arau teknikoak eta sanitarioak betetzea, bai saldu beharreko produktuei buruzkoak, bai instalazioei buruzkoak.
- Postuan dagoen dendariak jendaurrean jarri behar ditu prezioak, ondo ikusteko lekuan ipinita. Prezioek euren barne izango dituzte zergak.
- Europar Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, bizileku- eta lan-baimenak lortu izana, edo bizitzeko eta lan egiteko gaitzen dituen beste edozein agiri.
- Instalazioaren egiaztapenaren eta probaren urteko ziurtagiria (indarrean).
- Lan-harremanei, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta higieneari buruz indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa betetzea. Udalak ez du erantzukizunik izango interesdunak egin ditzakeen ez betetzeengatik.

2.- Halaber, jarduerak eragin ditzakeen kalteen erantzulea izango da, eta udalak ere jarduera horren aurrean hirugarrenaren izaera izango du.

3.- Bestalde, honako hauek ere izan beharko dira kontuan:

a) Argindarra behar izango balu Iberdrolarekin kontratatu beharko du, eta debekatuta dago udal saretik hartzea. Erabili beharreko argindarra 10 Kw baino gutxiago denean dagokion buletina egin beharko da instalatzaile ofizial baten bitartez, eta 10 Kw-tik gorakoa denean buletina eta proiektua beharko dira, eta instalatzaile ofizial horrek egin beharko ditu lotura edo engantxe guztiak.

b) Ura hartzeko, dagokion kontratua sinatu beharko du udalarekin, eta dagokion instalazioa ere bere kontura izango da.

c) Okupatutako eremua hartutako egoera berdinean utzi beharko du okupazioa bukatzen denean.

d) Okupazioari dagokion tasa ordaindu beharko du.

Baldintza hauek guztiak betetzen direla egiaztatu beharko du okupazioa egiten hasi aurretik.

4.- Baimena bertan behera laga ahalko du udalak baldin eta osasun-neurriak kontuan hartzen ez badira edo/eta araudiak horrela aginduko balu; eta horren aurrean udalak ez du inongo erantzukizunik izango.

5.- Behin baldintzak beteta, baimenari dagokion informazioa jasoko duen txartela emango zaio adjudikazio-hartzaileari; bertan adierazita agertuko da zein den baimenaren titularra

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

(izen eta abizenak), zer salduko duen, NAN zenbakia, ibilgailuarekin jardungo balu horren matrikula, eta baimenaren epealdia.

Halaber, okupazioari dagozkion tasak ordaindu izanaren agiria izan beharko du eskura.

Dokumentazio hau herritarren bistan egongo da eta udal agintariek eskatzen badiote ere erakutsi egingo die.

6.- Hizkuntzari dagokionean, honako irizpide hauek izango dira kontuan:

- Jendaurrean jartzen diren kartelak eta bestelako informazioak gutxienez euskaraz egon beharko dira (edo, behar denean, euskaraz eta gaztelaniaz, biak material berean eta euskarari lehentasuna emanda). Testuak euskaratzeko laguntza behar izanez gero, UEMAra jo daiteke (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatera: 943 81 66 99 edo komunikazioa@uema.eus), gutxienez astebeteko aurrerapenarekin.

7.- Erreklamazio-orriak izan beharko dituzte eta horren berri ikusgai jarri.

4. Zerrenden osaketa eta esleipenak

Eskaerak batu ostean, eta webgunean adierazitako egunean, arestian zerrendatutako epealdietarako zerrendak osatuko dira zozketa bidez. Epealdi bakoitzeko zerrenda bat egingo da eskaeran epealdi horrekiko interesa agertu dutenekin. Zerrenda horretan oinarrituta, hurrenkeraren arabera egingo dira epealdi bakoitzeko esleipenak.

Zerrendak eratzeko **zozketa publikoa** izango da eta streaming bidez jarraitu ahal izango da honako estekan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_bergara_es.html. Zozketaren emaitza web-orrian argitaratuko da, **Kultur Sailari** dagokion atalean (*Lurzoru Publikoa Okupatzeko Deialdiak*), eta horrek jakinarazpen-izaera izango du eragin guztietarako. Zozketa **2026eko azaroaren 12an** , **09:30ean** egingo da.

Sortutako zerrendaren (hurrenkeraren) arabera baimena lortzeko aukera duen interesdunak salmenta-data baino hamar (10) egun baliodun lehenago egiaztatu behar du kale-salmentarako bete beharreko baldintzak betetzen dituela, eta horien agiriak aurkeztu beharko ditu, zehazki honako hauek:

1.- Salmentan jardungo dutenen izen eta abizenak eta titularrarekin duten harremana.

2.- Jardungo dutenen janariak manipulatzeko ziurtagiriak.

3.- Erantzukizun zibileko poliza kontratatuta dutela jarduera hori babesteko (gutxienez 150.000 euroko estaldurarekin). Egiaztatze aldera, poliza eta berau ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko dira.

4.- Suteen aurka babesteko instalazioen urteko berrikuspenaren ziurtagiria, UNE 23120 arauaren «Urteko Mantentze Programan» eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera mantentze-lanak egin izana egiaztatzen duena.

Halaber, Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du, datuen bitartekaritza-plataformen eta dagozkien kontsulten bidez, honako informazio hau:

- Bergarako Udalarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion epigrafean alta emanda egotea.

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

- Elikagaien establezimenduen eta elikagaien jardueren erregistroan alta emanda egotea.
- Jarduerarako erabiliko duen ibilgailuak dagokion azterketa teknikoa igaro izana.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatea.
- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Interesdunek egiaztapen edo kontsulta horien aurka egiteko eskubidea dute. Kasu horretan, idazki arrazoitua aurkeztu beharko diote udalari, eta dagozkion datuak eta dokumentuak aurkeztu.

Aipatu kontsulta egitea ezinezkoa bazaio Udalari, Udalak dagozkion dokumentuak aurkezteko errekeritu ahal izango dio interesdunari.

Aipatu epe horretan aurkeztu beharreko dokumentazioa zuzentzeko aukerarik ez da emango 10 egun balioduneko epetik haratago. Epe hori baino lehenago dokumentazioa aurkeztuko balu interesdunak eta zuzentzeko edo osatzeko beharra egongo balitz, zuzentzeko eskaera luzatu ahal izango dio udalak posta elektronikoz, 39/2015 Legeak aurreikusitako epeak aplikagarri izango ez direlarik.

Behin-behineko esleipena jakinaraziko zaio interesdunari, eta jakinarazpenarekin batera, tasa ordaintzeko erreziboa helaraziko zaio. Baimena behin betikotzat joko da tasa ordaintzen denean. Ildo horretan, okupazioa gauzatu baino lehen izan beharko du tasa ordainduta (okupazioaren aurretiko lanegunean, eguerdiko 13:00ak baino lehen); ez da onartuko egunean bertan esku-dirutan egindako ordainketarik. Tasa ordaindu dela egiaztatzeko, egiaztagiria helarazi beharko da kontratazioa@bergara.eus posta elektronikora.

Aipatu diren hamar (10) egun horiek baino lehen ez bada konfirmaziorik jasotzen interesdunaren aldetik, ohartarazpen edo jakinarazpenik egin gabe automatikoki okupaziorako baimenari uko egin dela ulertuko da, eta udala harremanetan jarriko da hurrenkeraren arabera dagokion hurrengo interesdunarekin.

Etortzeko interesik ez balu 10 egun baliodun horiek baino lehenago Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko dio, eta zozketan erreserbarako edo zerrendan atera den hurrengoari adjudikatuko zaio. Hala gertatuz gero, ez da penalizaziorik izango.

Era berean, baimena esleituko balitz eta, arrazoia edozein izanda ere, baimendua ez balitz baimendutako egunean bertaratuko, edo behin-behineko esleipena izanda ez balu tasa ordainduko, zerrenda guztietan (epealdi guztietan) atzeko posiziora pasatuko da automatikoki.

5. Udalaren betebeharrak

Udalak aurretik finkatutako saltokirako gunea gordeko die, eta udalaren baimenik ez duen beste inork jarduera horretan ez duela jardungo bermatuko die.

6. Ustiatzeko eskubidea

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du okupaziorako baimena edo eskubidea beste edozeini laga edo zeditu.

Baimendutako pertsona edo enpresak eskubide hauek izango ditu:

- Baimenduta dagoen salmenta-postua betetzea.

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

Bergarako Udala

- Salmenta ibiltariaren jarduera jendaurrean eta modu baketsuan egitea, zehaztutako ordutegian eta baldintzetan.
- Udalak emandako baimena adierazten duen identifikazio-txartela jasotzea.
- Instalazioa non kokatuko den jakiteko eskubidea.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Zerbitzu Orokorreko eta Kontratazio Teknikaria

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

Bergarako Udala

Pliego de condiciones que regulan el procedimiento de concesión de autorizaciones de ocupación de suelo para instalación de churrería, durante los años 2026

1. Objeto de la convocatoria

Concesión de autorizaciones para ocupación de suelo público con vehículo para actividad de venta de churros, durante el año 2026, en los periodos señalados a continuación, en la Plaza Fraiskozuri.

Periodos:

1.- Desde el 21 de enero hasta el 28 de febrero de 2027.

2.- Desde el 4 de marzo hasta el 21 de marzo de 2027.

3.- Desde el 14 de octubre hasta el 28 de noviembre de 2027.

4.- Desde el 30 de noviembre de 2027 hasta el 16 de enero de 2028.

**Estos periodos podrán ajustarse en su momento para adecuarse a los criterios generales.*

2. Solicitudes

Podrá formular su solicitud cualquier persona física o jurídica –en todo caso cumpliendo los requisitos para el ejercicio de la actividad para la que se solicita autorización–, o su representante legal cumplimentando el impreso **F0140D.** En la misma se deberá indicar las fechas para las que desea la autorización de ocupación y venta, manifestando así mismo que conoce y muestra su disposición a cumplir todas las obligaciones recogidas en el presente pliego de condiciones.

No se admitirán dos solicitudes con la misma matrícula.

Los/as interesados deberán presentar la documentación (en papel o de manera electrónica) en el Registro General del Ayuntamiento. Dado que el Ayuntamiento de Bergara está adherido al Servicio SIR (Sistema de Interconexión de Registros), las personas interesadas podrán presentar solicitudes y otros documentos dirigidos al ayuntamiento en otras administraciones de forma segura y con conformidad legal. Por lo tanto, también se pueden registrar:

- En Oficinas de Asistencia en Materia de Registros de cualquier administración pública (ayuntamientos, diputaciones, comunidades autónomas, administración del estado u organismos dependientes) integrada en el SIR.
- En el servicio ORVE de Correos.

El plazo de presentación de instancias finalizará el día 4 de noviembre de 2026 a las 13:00 horas.

3. Obligaciones de las personas o entidades adjudicatarias

La persona o entidad adjudicataria estará sujeta a las siguientes obligaciones:

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

Bergarako Udala

1.- Obligaciones generales

- Estar dada de alta en el Régimen de Autónomos de la Seguridad Social.
- Quienes realicen la actividad deberán contar con el carné de manipulación de alimentos.
- Encontrarse al corriente en sus obligaciones para con Hacienda Foral de Gipuzkoa y Seguridad Social.
- Encontrarse al corriente en sus obligaciones para con el Ayuntamiento de Bergara.
- Estar dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, en el epígrafe correspondiente.
- Tener contratada una póliza de responsabilidad civil que cubra dicha actividad (con una cobertura mínima de 150.000 euros).
- Estar dada de alta en el registro de establecimientos y actividades alimentarias.
- El vehículo que utilice para la actividad deberá haber superado la inspección sanitaria y la inspección técnica de vehículos.
- Cumplir los requisitos establecidos en la normativa del producto o productos a la venta. Los productos a comercializar o vender en régimen de venta ambulante deberán cumplir lo establecido en materia de sanidad, higiene, normalización y etiquetado.
- Cumplir las normas técnicas y sanitarias que sean de aplicación tanto respecto a los productos en venta como a las instalaciones.
- La persona vendedora que se encuentre en el puesto deberá exponer los precios públicamente en un lugar bien visible. Dichos precios incluirán los impuestos.
- En el caso de personas extracomunitarias, haber obtenido los permisos de residencia y trabajo, o cualquier otro documento que las habilite para residir y trabajar.
- Certificado anual vigente de verificación y prueba de instalación.
- Cumplir lo establecido en cuantas disposiciones estén en vigor en materia de relaciones laborales, Seguridad Social y seguridad e higiene en el trabajo. El Ayuntamiento no tendrá responsabilidad alguna respecto a los incumplimientos en los que pudiera incurrir la persona o entidad interesada.

2.- Así mismo, será responsable de los posibles daños que pudiera generar la actividad, y ante ella el ayuntamiento tendrá también la consideración de tercero.

3.- Por otro lado, deberá tener también en cuenta los siguientes aspectos:

a) En caso de necesitar suministro eléctrico, deberá contratarlo con Iberdrola, quedando prohibido el suministro a partir de la red municipal. Si la potencia necesaria es inferior a 10 Kw, deberá cumplimentar el boletín correspondiente mediante un instalador oficial, y si la potencia es de 10 Kw o superior, será preciso el boletín y un proyecto, debiendo efectuar todas las conexiones y enganches dicho instalador oficial.

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

b) Para el suministro de agua, deberá suscribir con el ayuntamiento el correspondiente contrato, siendo la instalación a cargo de la persona o entidad solicitante.

c) Cuando finalice la ocupación, deberá dejar el espacio ocupado en las mismas condiciones en las que estaba.

d) Deberá abonar la tasa correspondiente a la ocupación.

Deberá acreditar el cumplimiento de todas estas condiciones antes de iniciar la ocupación.

4.- El ayuntamiento podrá dejar sin efecto esta autorización en caso de no adoptarse las medidas sanitarias y/o si así lo ordenara la normativa, sin que ello implique responsabilidad alguna para el ayuntamiento.

5.- Una vez cumplidos los requisitos, se le entregará una tarjeta que recogerá la información correspondiente a la autorización, con indicación de la identidad de la persona titular de la autorización (nombre y apellidos), los productos a la venta, el número de DNI, la matrícula del vehículo –si lo utiliza para la actividad– y el periodo de tiempo autorizado.

Asimismo, deberá tener disponible el documento acreditativo de haber abonado las tasas correspondientes a la ocupación.

Esta documentación estará a la vista del público y deberá mostrársela a las autoridades municipales si así se lo requirieran.

6.- Respecto a la lengua, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

Todos los carteles expuestos al público, así como cualquier otra información, deberán estar al menos en euskera (y si fuera preciso en euskera y castellano, ambos con el mismo material y dando prioridad al euskera). En caso de necesitar ayuda para traducir los textos al euskera, pueden contactar con UEMA, con al menos una semana de antelación (UEMA - Mancomunidad de Municipios Euskaldunes: 943 81 66 99 o komunikazioa@uema.eus).

7.- Deberán disponer de hojas de reclamaciones y dar cuenta de ello exponiéndolo al público.

4. Adjudicación

Una vez recopiladas las solicitudes, en la fecha indicada en la web, mediante sorteo, se conformarán los listados para los periodos anteriormente enumerados. Se elaborará un listado por cada periodo, con quienes hayan mostrado interés por el mismo en su solicitud. En base a dicho listado se realizarán las adjudicaciones de cada periodo conforme al orden de prelación.

El **sorteo** de conformación de listados será **público** y se podrá seguir por *streaming* en el siguiente enlace: *https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa/directo_bergara_es.html*. El resultado del sorteo será publicado en la página web, en la sección correspondiente al **Departamento de Cultura** *(Convocatorias de Ocupación de Suelo Público),* lo cual tendrá carácter de notificación a todos los efectos. El sorteo se realizará el **12 de noviembre de 2026, a la 09:30.**

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

La persona o entidad interesada que, de acuerdo con el orden del listado elaborado pueda obtener la autorización, deberá acreditar con **diez (10) días hábiles de antelación a la fecha de venta** el cumplimiento de los requisitos exigidos para la venta ambulante, aportando la documentación de los mismos, en concreto:

1.- Nombre y apellidos de quienes vayan a realizar la actividad de venta, y su relación con la persona o entidad titular.

2.- Carné de manipulación de alimentos de quienes vayan a realizar la actividad.

3.- Acreditación de tener contratada una póliza de responsabilidad civil que cubra dicha actividad (con una cobertura mínima de **150.000** euros). Para su acreditación, se deberán presentar la póliza y el justificante de haberla abonado.

4.- Certificado de revisión anual de las instalaciones de protección contra incendios que certifique haber realizado las operaciones de mantenimiento según lo establecido en el «Programa de Mantenimiento Anual» de la norma UNE 23120 y demás normativa aplicable.

Asimismo, el Ayuntamiento de Bergara comprobará de oficio, a través de las plataformas de intermediación de datos y de las correspondientes consultas, la siguiente información:

- Si se halla al corriente en sus obligaciones para con el Ayuntamiento de Bergara.
- Si está dada de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente.
- Si está dada de alta en el registro de establecimientos y actividades alimentarias.
- Si el vehículo que utilizará para la actividad ha superado la inspección técnica correspondiente.
- Hallarse al corriente en sus pagos para con la Seguridad Social.
- Hallarse al corriente en sus obligaciones tributarias respecto a la Hacienda Foral de Gipuzkoa.

Las personas interesadas tienen derecho a oponerse a dichas comprobaciones o consultas, en cuyo caso deberán presentar al ayuntamiento un escrito motivado y aportar los datos y documentos correspondientes.

Si la realización de dicha consulta no fuera posible, el Ayuntamiento podrá requerir al interesado para que aporte los documentos correspondientes.

No se admitirá la subsanación de la documentación a presentar en dicho plazo más allá del plazo de 10 días hábiles. Si antes de dicho plazo el/la interesado/a presentara la documentación y fuera necesario subsanarla o completarla, el Ayuntamiento podrá solicitar la subsanación por correo electrónico, no siendo de aplicación los plazos previstos en la Ley 39/2015.

La adjudicación provisional será notificada a la persona o entidad interesada, junto con el recibo de pago de la **tasa.** La autorización se entenderá definitiva una vez abonada dicha tasa. En este sentido, la tasa deberá estar abonada antes de las 13:00 horas del día laborable anterior al de la ocupación, y no se admitirán pagos en metálico en el mismo día. Para acreditar el pago de la tasa, se deberá enviar el justificante de pago al siguiente correo electrónico: kontratazio@bergara.eus .

ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe

Una vez transcurrido el referido plazo de diez (10) días sin que se haya recibido confirmación por parte de la persona interesada, sin mediar ningún otro apercibimiento o notificación se entenderá automáticamente que se ha renunciado a la autorización de ocupación, de modo que el ayuntamiento se pondrá en contacto con la siguiente persona o entidad interesada que por orden corresponda.

Si no tuviera interés en venir deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento de Bergara con anterioridad a los 10 días hábiles, adjudicándose al siguiente que haya salido en el sorteo para la reserva o en la lista. En tal caso, no habrá penalización.

Asimismo, en el supuesto de que, tras adjudicarle la autorización, **la persona autorizada por cualquier motivo no se presentará en la fecha autorizada, o no abonará la tasa de la adjudicación provisional, la misma pasará automáticamente en todos los listados (para todos los periodos) a la última posición.**

5. Obligaciones del ayuntamiento

El ayuntamiento reservará el espacio previamente establecido para el punto de venta, garantizando que no desarrollará dicha actividad nadie que no tenga autorización municipal.

6. Derecho de explotación

La persona o entidad adjudicataria no podrá ceder a terceros la autorización o derecho de ocupación.

Las persona o empresa autorizada tendrá derecho a:

- A ocupar el puesto de venta autorizado.
- A desarrollar la actividad de venta ambulante de forma pública y pacífica en el horario y condiciones establecidos.
- A que se le expida la tarjeta que acredita la autorización municipal concedida.
- A conocer el lugar de ubicación de la instalación.

Bergara, a la fecha de la firma electrónica

Técnico de Servicios Generales y Contratación

EKS | CSV: ESKU365a3c86-b670-48fc-b0b9-af4d584d4ffe
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410